MUNDUENEA
MUNDUKO IPUINEN ETXEA

TXILIBITU MAGIKOA

FLUIERAȘUL MAGIC



LABAYRU FUNDAZIOA

AUDIO LIBURUA

IPUINA ENTZUN

ASCULTĂ POVESTEA

Munduenea, munduko ipuinen etxea online

www.munduenea.labayru.eus

© LABAYRU FUNDAZIOA. 2022
EDITOREA: LABAYRU FUNDAZIOA (ZIORTZA ARTABE, IGONE ETXEBARRIA, AKAITZE KAMIRUAGA ETA BIOSNE ZARANDONA)
COLON DE LARREATEGI 14, 2. ESK. 48001 BILBO
WWW.LABAYRU.EUS

JATORRIZKO TESTUA ETA AHOTSA: DANIELA ȘTEFAN
TESTUEN MOLDAKETA ETA AHOTSA EUSKARAZ: YOLANDA ARRIETA
ILUSTRAZIOAK: ENRIQUE MORENTE
MAKETAZIOA: BIKO KOMUNIKAZIOA
INPRIMATEGIA: GERTU
I.S.B.N: 978-84-19063-08-3
LEGE GORDAILUA: BI 01389-2022

LAGUNTZAK: EGITASMO HONEK BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAK JASO DITU.

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org, 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

TXILIBITU MAGIKOA



FLUIERAȘUL MAGIC

LabayruFundazioa

HIZTEGIA
VOCABULAR

- Txilibitu = Fluieraș
- Zuri = Alba
- Artzain = Cioban
- Mendi = Munte
- Ardi = Oaie
- Bildots = Mieluță
- Asto = Măgăruș
- Txakur = Câine
- Hagaxka magiko = Baghetă magică
- Amama = Bunica



Ipuin hau Errumanian kontatzen dute. Errumaniera latinetik datorren hizkuntza da, eta Errumanian ez ezik, Moldavian eta Serbiako Voivodina probintzian ere hitz egiten dute.

Aceasta este o poveste tradițională românească. Limba română derivă din limba latină și este vorbită în România, Republica Moldova și provincia sârbă Voivodina.


MOLDAVIA
ERRUMANIA
VOIVODINA
(SERBIA)

Karpato mendien barrenean, Mugur izeneko artzaina bizi zen. Mugurrek abereak zaintzen zituen: ardiak, bi asto eta hiru txakur.

Abereen artean bildots eme bat zegoen, bizia eta jakin-min handikoa: Xuri.

Gauza guztiek liluratzen zuten Xuri. Berarentzat abentura hutsa zen lore baten petaloak behatzea edota zomorro baten oinak zenbatzea.



La poalele munților Carpați, locuia odată un ciobănaș pe nume Mugur. Mugur avea în grijă o turmă de oi, doi măgari și trei câini.

Printre oițe se afla o mieluță năzdrăvană și curioasă din fire, pe nume Alba.

Pe Alba o fascina lumea din jurul ei. Pentru ea era o adevărată aventură să observe petalele unei flori sau să numere piciorușele unui gândăcel.



Udaberriko goiz batean, Mugurrek larrera eraman zuen abere-taldea. Xuri txikia ere abereen atzetik abiatu zen.

Într-o dimineață de primăvară, ciobănașul Mugur își scoase turma la pășunat. Micuța Alba se alătură familiei.





—Itxaron!

Bere gauzetan murgilduta zihoanez, atzean geratu zen.

— Așteptați!

Pierdută în gândurile ei, rămăsese în urmă.

Bat-batean, zerbait ikusi zuen dir-dir egiten.
—Ene! Zer ote da hori?
Tipi-tapa hurbildu zen hobeto ikusteko.
—Maitagarri baten hagaxka magikoa!





Deodată văzu în iarbă ceva care strălucea.
— Ah! Ce o fi?
Se apropie încet pentru a vedea mai bine ce este.
— Bagheta magică a vreunei zâne!





Amama hurbildu zitzaion.
—Zer da, Xuritxo laztana?
—Begira, amama! Hagaxka magiko bat!
—A, bai?

Bunica se apropie de ea:
— Ce este, dragă Alba?
— Uite, bunico! O baghetă magică!
— Ah, da?

Amamak ondo asko zekien ilobak aurkitutakoa txilibitua zela, baina ez zuen txikiaren ilusioa zapuztu nahi.

Bunica știa foarte bine că ceea ce găsise nepoata ei era un fluieraș și nu dorea să-i strice bucuria.



—Ikusiko dugu zer egiten duen? —galdetu zuen Xurik.

—E… —amama erantzun egoki baten bila hasi zen—. Bazkaltzera joan behar dugu orain! Gero, etxera bueltan.

Xurik hobeto pentsatu zuen: tripak orroka zeuzkan.

—Ados!

— Încercăm sa vedem ce poate să facă? întrebă Alba.

— Păi..., bunica încercând să caute un răspuns potrivit, acum trebuie să mergem la pășune, ca să mâncăm! O să vedem îndată ce ajungem acasă.

Alba se gândi mai bine: într-adevăr, burtica îi cam cerea de mâncare.

— Bine, de acord!



Eguzkia gorde zenean, Mugurrek arditegian batu zituen abere guztiak. Xuri korrika joan zen amamarengana.

—Orain?

—Zaude. Konjuruak behar ditugu.

—Zer dira konjuruak?

Amamak begi-keinua egin zien abereei. Gero, erantzun zuen:

—Egoerak aldatzeko esakuneak dira konjuruak. Hagaxka hutsarekin ez dago magiarik.

—A…

Când soarele coborî la apus, Mugur adună turma la stână. Micuța Alba alergă nerăbdătoare la bunica să vadă cum va folosi bagheta.

— Acum?

— Așteaptă, avem nevoie de incantații magice.

— Ce sunt incantațiile?

Bunica le făcu cu ochiul celorlalți, apoi răspunse:

— Magiile trebuiesc însoțite de cuvinte potrivite pentru a schimba lucrurile. Doar cu bagheta nu poți face o magie.

— Aha…






Abereek korroan inguratu zuten bildotsa.
—Jaso hagaxka —agindu zion amamak.
—Horrela?
—Bai.

Animalele se strânseră în jurul mieluței.
— Alba, ridică bagheta! spuse bunica.
— Așa?
— Da.



—«Ari, ari, ari! Astoa zaunkaka ari!» —oihukatu zuen amamak.
—«Ari, ari, ari! Astoa zaunkaka ari!» —oihukatu zuen ilobak.
Eta Panus astoa zaunkaka hasi zen, zaunk-zaunk!

„Hocus-pocus tiri-bum-bum-bum!
Măgăruș-Pănuș va lătra ca un câine!" — strigă bunica.
„Hocus-pocus tiri-bum-bum-bum!
Măgăruș-Pănuș va lătra ca un câine!" — strigă și Alba.
Și Măgaruș-Pănuș începu să latre ca un adevărat câine:
“Ham-ham-ham!”




ZAUNK-ZAUNK!
HAM-HAM-HAM!

—Berriro! —esan zuen Xurik gogoz.
—«Ari, ari, ari! Txakurra arrantzaka ari!» —bota zuen amamak.
—«Ari, ari, ari! Txakurra arrantzaka ari!» —errepikatu zuen ilobak.
Eta Suru txakurra arrantzaka hasi zen, aja-aja-aja!



— Încă o dată! strigă entuziasmată Alba.

„Hocus-pocus tiri-bum-bum-bum! Câinele se va transforma într-un măgăruș!” — exclamă bunica.

„Hocus-pocus tiri-bum-bum-bum! Câinele se va transforma într-un măgăruș!” — repetă nepoata.

Și câinele Suru îndată intră în joc și începu: Iha-iha-iha!







—Benetakoa da! Benetakoa da! —oihukatu zuen Xurik poz-pozik.

Amama gerturatu zitzaion.

—Utzi orain Mugurri. Ea berak zer egiten duen.

— Funcționează! Funcționează! strigă încântată Alba.

Bunica se apropie de ea.

— Acum dă-i bagheta și lui Mugur, să vedem ce va face cu ea.

—Tori, Mugur! Hagaxka magiko bat!

Mugurrek eskuetan hartu zuen poz-pozik, hagaxka hura joan zen neguan elurretan galdutako txirula baitzen.

—Non aurkitu duzu? Galdutzat neukan!

Xuri erabat liluratu zen.

—Zeurea da?

— Uite, Mugur! O baghetă magică!

Mugur o luă și se bucură nespus pentru că bagheta era chiar fluierașul său pe care îl pierduse în zăpadă astă-iarnă.

— Unde l-ai găsit? Am crezut că l-am pierdut!

Alba răspunse surprinsă:

— Este al tău?





—Bai, neurea da —erantzun zuen artzainak.

Mugur harri batean eseri zen. Abereak, bere aurrean. Xuri, ondoan.

—Zer egin behar duzu? —galdetu zuen Xurik.

Mugur artzaina txilibitua jotzen hasi zen, zoragarri.



— Da, este al meu, răspunse ciobanul.

Mugur se așeză pe o piatră, animalele se apropiară de el. Se apropie și Alba, curioasă.

— Ce o să faci? întrebă Alba.

Ciobănașul Mugur începu a cânta strașnic la fluieraș.



Abereak dantzan eta kantuan hasi ziren:
“Intsusa-txilibitua, suaren soinua!
Hezur-txilibitua, laztanen oihua!
Hari-txilibitua, musuen doinua!”



Animalele începură și ele să cânte și să danseze:
„Fluieraș de soc, mult zice cu foc;
Fluieraș de os, mult zice duios;
Fluieraș cu fire, mult zice subțire!”



—Benetan ere magikoa da… —esan zuen Xuri bildotsak.

Eta, orduz geroztik, ARI, ARI, ARI! TXILIBITUA KARPATOETAN ARI, FLI-FLI eta FLI-FLI!»

— Chiar este magic…! spuse mieluța Alba.

Și de atunci, SUNETUL FERMECĂTOR ȘI UNIC AL FLUIERULUI, UMPLE VĂILE ȘI COLINELE MUNȚILOR CARPAȚI.





MUNDUENEA
MUNDUKO IPUINEN ETXEA

*Munduenea. Munduko ipuinen etxea*n hamar ipuin batu ditugu, gure artean bizi diren kultura ezberdinetako hiztunei jasota. Bilduma 6-10 urte bitarteko umeei zuzenduta dago. Inguruko kultura eta hizkuntza aniztasunak dakarkigun aberastasuna ipuinen bidez erakustea da helburua. Jatorrizko hizkuntzan eta euskaraz entzun eta irakurri ahal izango dituzu. Munduko ipuinen etxera sartu nahi?

Munduenea. Casa Poveștilor Lumii este o colecție de zece povești, din tot atâtea culturi care coexistă în mediul nostru, adresată copiilor cu vârsta cuprinsă între 6-10 ani. Prin aceste povești se dorește să se arate bogăția pe care ne-o aduce diversitatea de culturi și limbi. Intră în casa poveștilor și descoperă-le atât în limba originală, cât și în limba bască.




MUNDUENEA
HITZA HITZ
A PALABRA É A PALABRA


MUNDUENEA
DEABRUAREN ZUBIA
EL PONT DEL DIABLE


MUNDUENEA
GIZON ABERATSA
ایک امیر آدمی


MUNDUENEA
KATU ARTISTAK
LES CHATS ARTISTES


MUNDUENEA
EID AL FITR-EKO OPARIA
هدية عيد الفطر


MUNDUENEA
MATSU, ITSASOKO JAINKOSA
妈祖，海上之神


MUNDUENEA
DORTOKA ZEKENA
IJAPA OLOJUKOKORO


MUNDUENEA
ZORIONTSU IZATEKO GAKOA
CAABI NGIR AM MBËKTE


MUNDUENEA
CAIPORA



9 788419 063083

LabayruFundazioa